



Steilas sindikatuaren jarrera PPEk OPEri jarritako helegitearen aurrean

STEILAS sindikatuak prentsa ohar honen bidez harridura, haserrea eta sumindua agertu nahi du behin jakinda Partido Popularrak Nafarroan eskaintza publikoetan ateratzekoak diren 358 lanpostuei helegite jarri diela.

Berri honek ekarri du Barkosen gobernuak bihar egin beharrean, beste aste betez atzeratzea oposizioen iragarpena. Nafar jendarte osoak, eta bereziki oposizioak prestatzen ari diren pertsonak, berehalako erantzuna izan beharrean, beste aste betez itxoin behar dute, nonbait.

UPNren kudeaketa okerrak, Iribas jaunarenak eta bere talde osoarenak, deialdia bera jartzen du kolokan. Partido Popularrak, bere aldetik, gustuko ez duen prozesu bat geldiarazteko helegitea baliatu du. Partido Popularraren ustelkeria kasuek haren zeregin osoa zipriztintzen duten momentuan Nafarroan botoen bitartez erdietsi ez zutena helegitearen bitartez saiatu dira, eta hau guztia Madrilgo gobernu funtziotan dagoenean.

Barkosen gobernuari honelakoa exijitzen diogu: jarrera argia, tinkoa, sendoa egoeraren aurrean. Lan Eskaintza Publikoaren inguruan burutu den kudeaketa txarrari ezin zaio orain gehitu inolako zalantza jarrerarik. Oposizioak prestatzen ari direnek euren bizitzan egonkortasuna ekartzen ahal dien prozesuaren inguruan antolatu dute, eta seriotasuna eskatzen dute.

Lan Eskaintza Publikoa aurreikusi eta iragarri bezala onesteko deia egiten diogu Nafarroako Gobernuari, teknikoak diren irizpideetan oinarritua, bazterketarik gabekoa, eta azterketak espezialitateka eginda.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus